

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ingurumen Sailak eta Endesak lankidetzarako hitzarmen bat sinatu dute elektrokuzio- eta talka-arriskuak murrizteko hegazti-faunari

*Eva García Balaguer andreak Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiak eta Ignacio Montaner jaunak Endesako zuzendari nagusiak Aragoi, hitzarmena sinatu dute gaur goizean*

Astelehena, 2018.eko irailak 24

Eva García Balaguer andreak Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiak eta Ignacio Montaner jaunak Endesako zuzendari nagusiak Aragoi lankidetzarako hitzarmena sinatu dute gaur goizean, linea elektrikoetan proiektu ezberdinak burutzearen bidez elektrokuzio- eta talka-arriskuak murrizteko edo desagerrarazteko mehatxatutako hegazti-faunari.



Eva García Balaguer eta Ignacio Montaner hitzarmena sinatzen.

Hitzarmen honen bidez 64 euskarriko 6,2 kilometro inguruko linea elektrikoan esku hartuko da. Zuzendari nagusiak dio "arriskua murrizteko neurriak erabiltzearen bidez hegazti-fauna babesteko helburuan aurrera egingo dela".

Endesak bi linea aldatzeko konpromisoa hartu du, bata Kasedan eta bestea Erronkarin. Lehenengoak 1 km-ko aireko ibilbidea eta 33 euskarri ditu, Sofuentesetik San Isidro del Pinar-era, eta Nafarroan galzoriko espezie hartzen den Bonelli Arraoinaren (*Aquila fasciata*) arrisku-zonan dago. Bigarrenak 4,1 km-ko ibilbidea eta 31 euskarri ditu, eta Burgitik Bidankozera (*Aquila fasciata*) doa. Galzoriko espezie baten, hots, ugatzaren (*Gypaeetus barbatus*), arrisku-zonan dago.

Esku-hartzeak 90.280 euroko aurrekontua dauka. 2018rako, Sailaren aurrekontuaren kargura 34.000 euroko ekarpena egingo da, eta Endesak, bestalde, 56.280 euroko ekarpena egingo du.

Nafarroan 1991 baino lehen eraikitako goi-tentsioko hainbat linea elektriko daude, eta haien ezaugarri teknikoengatik oso arriskutsua da hegazti-faunarentzat. Gainera, galzorian dauden aztore-arranoaren eta ugatzaren bizi-eremuan daude, eta, beraz, haien hilkortasuna murrizteko

lanek interes soziala dute, dudarik gabe. Azken urteotan hegazti ugari elektrokutatu dira linea horietan.

Galzoriko espezie garrantzitsuak direla aintzat hartuta, linea elektrikoak zuzentzeko arategi autonomikoaz eta estatalaz harago doazen neurriak adostu dira Endesarekin, modu horretara ahalik eta emaitzarik onenak lortzeko.